

H. Marcuse hil da

1969an JAKIN-ek zenbaki berezi bat Marcuseri buruz prestatu zuen (JAKIN 35, 1969, epaila-maiatza) eta ez zuen izan haren izena osorik aipatzerik: beti M., edo «pentsalaria», «filosofoa», etab., esatera behartu gintuen zentsurak. Marcuse esaterik ez zegoen: su-bersiboa zen haren izena bera aipatzea.

Hil da Herbert Marcuse, 1898ko uztailearen 19an Berlinen sortua, Frankfurtoko Eskolako buruetakoa, eragile haundienetako bat marxismoaren eta, jeneralkiago, pentsamendu sozial kritikoaeren berri-ztapenean. Ortodoxia sobiet-marxistak anarkistatzat eta mende-balde liberaleko arrazionalismo konformistak erromantikotzat joa, «68ko maiatzaren» aitagoi deitua, filosofo judu-aleman kezkatia he-retiko bat izan da eliza filosofiko guzientzat, esistentzialismoaren (Heidegger), marxismoaren eta freudismoaren artean enbarazo gabe mogitzen zena, gure mendearen lehen erdiko korrante inportanteenak bere gogoetetan bilduz.

Marcuse mito bat baino gehiago izan da: errealitate bat, bizi-bizia. Intelektual bat. Konprometatua. Borrokaria. Ezein sistema-tan geratzen ez zena, beti eboluzioan, beti irekita, larogei urterekin ere bide berrietan abiatzeko ausart.

Sujetuari ematen zaion inportantzia da, beharbada, Marcuse-ren filosofian destakatzen dena, eboluzio guzian zehar beti ardatz gisa konstante aurkitzen duguna, fase esistentzialistan, materialistan nahiz freudo-marxistan (holako hiru aldi berezi ohi bait dira haren pentsabideetan). Heidegger-i jarraiki abiatu zen Marcuse: hots, esistentziaren historikotasun irristakorrari buruz, Dasein analisi heideggerianoa sakonduz eta gizarte burgesaren antropologia hezur-mituz. Marxismo fenomenologiko bat. Ezkertiarrek historiaren eta bilakaduraren, progresoaren, izenean mespretxatzen ohi zuten «biologismo» freudianoa, Marcuse-k, gizabanakoaren egoera interpreta-ziotatik eta medikuntzatik historiaren interpretaziorako tresna oina-rrizkotara altxatu du bortizki: plazerra, atsegina, histori filosofiako kontzeptu itzuli du, plano indibidual soiletik historiko eta filoso-fikora zabalduz. H. d., naturaren kontzeptua berrirabazi du histo-riaren interpretaziorako, Hegel eta Marx-ez gero bazterturik geratu bait zen, historia, gizonagandik aparte, gizonaren aurrez-aurre, hor-

matzar itsu bat bezala, Prometeok igo behar duena, berezko objektibotasun batetan bururatuz, bere lege burdinezkoek, etab. Histori filosofia hegeliar eta marxistan, historia, bere barne lege omen direlako baitatik esplikatzen da eta legitimatzen da: «progreso» burutzen duten legeen baitatik hain zuzen; Marcuse-k, gizonaren desiren eta antsien eta utopien aldetik interpretatu eta legitimatu —edo kondenatu— nahi du. Historiaren interpretazio estetiko, interpretazio erotikoa bat ere, oposatzen dio XIXgn mendeari.

Esklaberia tekniko herstuenera dakarren progresoaren printzipioari, gozamenaren printzipioa oposatzen dio Marcuse-k. Hobeki, gozamenaren printzipioa beste progreso printzipiorik ez du nahi ezagutu.

Geroz eta gehiago, korrientea eta normala bilakatzen ari da, historia, progreso, plazerraren perspektibatik epaitzea: munduko gauzarik naturalenak iruditzen zaizkigu mogimendu ekologista, zentral nuklearren aurkako protesta, etab.; plazer esijentzia gizon eta emakumeen arteko erlazioen printzipio oinarritzko bat bilakatu da (familiaren oinarri bezala ikusten da, esate baterako), orain arteko mentalitatean horrek dakarren iraultzarekin, etab., etab. Mintzamolde berri eskandaloso bat nagusitu da. Hots, epaimolde berri bat. Hots, histori filosofia berri bat. Aski pentsatzen eta azpimarkatzen ez den puntua da, barne-barnean nolako iraultza histori-filosofikoa suposatzen duen, XIX. mendearen aldean, protesta mogimendu antinuklearrak esate baterako. Eta ez du logikarik falta, batek baino gehiagok, bere premisa XIX. mendetiarretatik, mogimendu antinuklearrari erromantiko sentimental eta erreazionari baderitzo: «progresoaren kontra» dihoa! Bistan bait dago, aurrerapen teknikoari oposatzen zitzaizkion langile «makina txikitzaileen» errebolta egunetatik oraingo mogimendu antinuklearrera, progresoaren kontzeptua zeharo itzulipurdikatu dela. Beraz, histori filosofia guzia.

Hizkera berria da egungo gazteriari, protesta mogimenduei, entzuten zaiena. Ez du zerikusirik XIX. mendeko filosofien eta mogimendu sozialen tematika nagusiekin. Marx-en textuak eta oraingo errebindikapenetako mintzamoldea alderatzea besterik ez dago, batetik bestera, jarraitzapenean, baina nolako aldea dagoen, ikusteko.

Marcuse, hain zuzen, «neomarxismoaren» inspiratzaile bortitze-netakoa bera, berriztapen horretantxe ahalegindu da batez ere. Bi Mundu Gerren artean, izpiritu iraultzailea, alde batetik sozial-demokratismoak eta bestetik stalinismoak hipotekatuta geraturik, loturik eta estankaturik instituzio artean, impasse batetan ikusi zuen Marcuse-k. Lehen Gerra Mundialaren biharamunean, historiaren penduloak eskuin aldera jo du. Restaurazio eta kontserbakoikeria berrien aro guzi honetan, Marcuse, lagun batzuekin Frankfurt-eko Eskolan bildurik, erakunde haundiek zeramatzen bidearen kontra errebelatu da, Teoria Kritikoa laboratzen eta izpiritu iraultzailearen suari bizi eusten ahaleginduz. Marxismoa, alderdi sozial-demokratikoan itzaltzen eta sobietarrean dogma monolitiko bilakatzen ari zen ar-

tean, Frankfurt-eko Eskola, eta bereziki Marcuse, biziro ahalegindu dira, beren trintxera akorralatutik, ia bakarrik, ahal zuten moduan, teorikoki batik bat, teoria kritikoa eta iraultzaile bezala gordetzen eta desarroilatzen, langile mogimendua, sortaldean nahiz sartaldean, indarra eta autonomia galduz zihoala, bagi eta motel, azkenean stalinismoak eta faxismoak zeharo itotzeko. Marxismoak, aldi honetan, bi ofizialtasun kontrariotan erdibiturik, izpiritu kritikoa espresio izateari utzi egin zion, Botere eta kontserbazio doktrina klasiko bat gehiago bihurtu zelarik. Marcuse-k, egoera sozial eta politikoa berrian, izpiritu iraultzailearen krisi orokorrean, marxismoaren funtzio gizarte-kritikoa bizirik iraunarazteko, Marx gaztearen izkribuetara errekorritu du («Marx gaztearen deskubrimendua», dogmatismo stalinistari buru egiteko), 30gn urteetan; esistentzialismoaz baliatu da («marxismo esistentzialista», ekonomizismo sobietarrari buru egiteko), Sartre baino lehenago; Freud-en aportunak marxismoarekin lotzen ahalegindu da («freudo-marxismoa»), W. Reich-en modura. Marxismo bizi eta kritikoa bat errepresentatuz beti ere. Bere garaian isilpean galdu zen lan guzi hori (Adorno, Horkheimer, W. Reich, W. Benjamin, Marcuse...), 30/40 urte geroago «deskubrituko» da... Fruituak 68ko maiatzean ikusiko bait ziren, mogimendu berria, Marcuse-k inspiratua hein batetan, erakunde «iraultzaile» ofizialei frontalki buruz-buru ager dadinean.

1930 eta 1970 artean beti bretxan, puntan, borrokatu denak, Marcuse-k, sistema bat ez digu utzi. Beharbada ez digu ezer utzi, libertate (intelektual) gehixeago baino. Izpiritu kritikoa, periodikoki ortodoxian eta eskola-dogmatismoan erortzen dena behin eta berriro, luzarago libertate bidetik ibiltzeko inkapaz balitz bezala (Kant ondoren eskola kantianoan, Hegel ondoren eskola hegelianoan, etab.), halako zulo batetik askatu eta berriro martxan ipini du: etorkizuna apuntatzen du, besterik ez. Zibilizazioa ohi deritzanak, «osotasun mutilatu» bat besterik ez duela adierazten, agertu digu: gizonari plazerra, gozotasuna, samurtasuna, debekatzen dizkion aingeru beltz suzko ezpataduna, paradisuak atea hersten. Marcuse, Prometeoren lekuan Narziso eta Orfeo ezarri dituen marxista bait da: plazerraren iraultzaren profeta. ■ *Joxe Azurmendi.*

Musika eta politika

Egunkarietan irakurtu ahal izan dugu: Khomeinik musika ez du askorik maite. Debekatu egin bide du musika, profanoa bederen, Rojas Marcos-ek erregalaturiko Carlos Cano-ren diskak salbu, agian. Iran-entzat arriskutsuegia da musika, nonbait. Inkisidore berri hau tradizio zahar bati lotzen zaio.

Musikak, doinuak, muntarik bazuela bagenekien, baina ez genuen uste hainbestekoa zenik. Harritzen gaituena, batez ere musikaren garrantzi politikoa hori da.